

T.B. ESKUBIDEAK

HISTORIA

Iragan mendeko 90. hamarkadan, futbola telebistaz (TVE, autonomikoak eta Canal Plus) emateko prestutasuna azaldu zuten zenbait operadorek. Horrek Canal Plusen gertuko Sogecableren eta Mediaproren arteko talka sortu zuen. Jardun legegileak, zeina GolTV-ri mesedegarria izan zaion ordainketa bidezko telebista digitalaren arautzean, zerikusia izan du telebista produktuek, eragiketa enpresarialek eta interes politikoek markatutako mapa osatzerako garaian.

TESTUINGURUA

Telebista eskubideen egoerak sekulako iraulia pairatu du aurreko denboraldiekin alderatuta. Joan den denboraldian sartu zen indarrean Espainiako Gobernuak 2015eko apirila amaieran onartutako dekretua. Haren arabera, klubek euren telebista eskubideak modu bateratuan saldu beharko dituzte.

LFPk 2015eko abenduan egin zuen enkantean 2.650 milioi lortu zituen 2019ra arte. Hala ere, kopuru hau Ingalaterrako Premier Leaguek tarte berdinerako saldutako 6.900 milioiengandik urrun gelditu zen.

Bietan, diru sarreraren zati handiena bertako salmentari dagokiona izango da. Bi liga profesionalen arteko banaketan, %90a Lehen Mailari esleituko zaio, eta gainontzekoa Bigarren Mailari. Hasierako %90 horretatik erdia zati berdinetan banatuko da, eta bestelako irizpideen arabera beste erdia.

Irizpide garrantzitsuena sailkapenarena izango da, kontu-sail honen erdia hartuko duena (Lehen Mailari dagozkion diru sarrera guztien laurdena). Horretarako, aurreko bost denboraldietako sailkapenak hartuko dira kontuan. Hala, azken denboraldiak kontu-sail osoaren %35eko garrantzia izango du (kopuru osoaren %8,75); azkenaurrekoak, %20 (kopuru osoaren %5); eta aurreko hiruek, %15 (% 3,75).

Lehen Mailara bideratutako milioien azken laurdena klubek sonaren arabera banatuko da. Javier Tebas patronalaren presidentek azaldu zuenez, honela banatuko da lauden hori: heren bat, abonatuak eta txarteldegia arabera. Gainontzeko %66a, berriz, modu honetan: %70 espainiar estatuko audientzien

arabera, eta geratzen den %30a ikus-entzunezko hautematearen, eta klubek eta estadioek produkzio onari egiten dioten ekarpenaren arabera.

EGUNGO EGOERA

Lehen Mailako gainontzeko 19 taldeekin gertatzen den bezala, Real Sociedad de Fútbol S.A.D. telebista eskubideen salmenta bateratuaren barruan aurkitzen da. Lege aldaketa honek ia 25 milioi inguru gehiago suposatuko dizkio, 2014-2015 denboraldiko 25 milioietatik aurtengo 49,8ra igotzea espero baitu, akziodunen batzarrari begira aurkeztutako kalkuluen arabera. Aurrekontuaren %33 telebista eskubideei dagokiena izatea aholkatzen du UEFAk, matchday eta babesleei dagokien diru-sarrerekin batera (beste bi heren). Hala, Realak, Lehen Mailako beste talde askoren gisan, bere aurrekontua telebista eskubideen ustiapenean oinarritua izango du. Proposatutako aurrekontuan, telebista diru sarrerek %65eko pisua izango dute, Real Lehen Mailara igo zenetik, jasotzen dituen telebista eskubideen diru sarrerek %300ean egin dute gora.

Bere aldetik, pasa den denboraldian 2012tik Realak eta Mediaprok auzitegietan mantentzen zuten eztabaida behin betiko argitu ahal izan zen, Lehen Mailara itzuli ondorengo lehen bi denboraldietan Mediaprok adostutakoa bete ez izanari buruz. Auzitegi maila ezberdinetan bi aldeek ezarritako erreklamazioen ondoren, Auzitegi Gorenak 2015eko irailan Klubaren aldeko behin betiko auzia eskaini zuen, Mediapro guztizko 11.118.345 euro ordaintzera behartuz.

Behin Mediaprorekin eztabaida amaituta, eremu juridikoa ez da itxi. Izan ere, Realak prest dago lehengo urteko telebista eskubideen salmentagatiko hitzarmenean aipatzen den betebeharrak bat betearazteko, epaitegietan edo hauetatik at. Baldin eta telebista eskubideen salmenta bateratua denboraldi bat aurreratuko balitz, Realak bi milioi euro osagarri jaso beharko lituzkeela uste du (hasieran, DTS enpresatik eta gero, Telefonikatik). Kontrako aldeak, ordea, Errege Dekretuaren osoko onarpena urte honetara arte izan ez denez, ordainketa gehigarrik ez dagokiola defendatzen du.